

UPV/EHUⁿ AZPIEGITURA ZIENTIFIKOA ETA FONDO BIBLIOGRAFIKOAK EROSI ETA BERRITZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2025)

Onartutako eta ukatutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Behin legezko epean eta eran jasotako dokumentuak berrikusirik eta kanpoko adituek egindako ebaluazio txostenak aztertuta, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) 2024ko uztailaren 21ean hala proposatuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE)

ERABAKI DU argitaratzeko agintzea errektoreordetzaren webgunean onartu eta ukatutako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Jakinarazten da gutxieneko nota **80** puntutan ezarri dela.

ESKAERAK BEHIN-BEHINEKOZ UKATUTA DITUZTEN ikertzaile nagusiek, **2025ko uztailaren 23tik irailaren 5ra arteko (biak barne)** epea izango dute alegazioak aurkezteko.

Ikertzaile nagusiek beren eskaerari dagokion ebaluazio txosten osoa eska dezakete, igz.ehudeialdiak@ehu.eus helbidera idatziz. Mezuaren gaien "Azpiegitura 2025 deialdia" idatzi behar da.

Alegazio guztiak deialdiaren 5. oinarrian eskaerak aurkezteko ezarritako bide berberetatik aurkeztu beharko dira:

*Eskabidea UPV/EHUren egoitza elektronikoan (<https://egoitza.ehu.eus>) aurkeztu beharko da, eta **"ESKATU"** eremuan **"2025 Azpiegitura"** erreferentzia eta unitatea **"Ikerketa errektoreordetza – UPV/EHUko ikerketa-deialdiak"** adierazi beharko dira. Horretarako, egoitza elektronikoan jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.*

Leioan, 2025ko uztailaren 22an

UPV/EHUren DEIALDIAK
IKERKETA ERREKTOREORDETZA